

Liburutegia

PILAR IPARRAGIRRE

Dottek nerbioak
dantzan ditu

Patricia Schröder

IBAIZABAL

102 orrialde

9 euro

Erregaliz taldea
oporretan Italian

Irakurle gaztetxoentzako lana da Aitor Aranak *Dottek nerbioak dantzan ditu* izenarekin euskaratu duen kontakizuna. Patricia Schröder-ena da jatorrizko liburua; marrazkiak berriz, Tina Schuleri zor zaizkio. Idazlan honek lau neska ditu protagonista. Erregaliz taldea osatuko dute neskak. Mutilak erdeinagarri samarrak direla uste izaten den adinean daude, nahiz eta batzuetan haiek esaten dizkieten gauzek nolabaiteko kilika eragiten duten euren barrenean. Gauza da, Dotteren aitonari esker, neska laukote hau Italiara joango dela oporretara, Dotteren neba txikia

—nahiko gogaikarria— aldamenen dutela. Baina hain zuzen ere Alessiori gertatutakoa bilakatuko da oporretan liluragarriena. ■

Langileen
sufrimenduak

Angelo Ferracuti (Fermo, 1960) idazle italiarraren *Le risorse umane* itzuli dute gaztelaniara Luis García Bermejok eta Rafael García Anguitak. 2006. urteko Sandro Onofri saria irabazi zuen liburu honek lan-tegiez eta beraietan lan egiten duten pertsonen dihardu. Langileak pairatu behar izaten dituen umiliazio, nahigabe eta ezbeharrez hitz egin du Ferracutik. Elkarriketatu dituen pertsonen artean, amiantoarengatik hil direnen alargunak eta ezagunak daude; baita *mobbing*-a jasan behar izan dutenak ere —tronpeta jole bat, esaterako—; silikosisia harrapatu duten meatzariak; Postako langile baten amets zapuztuak —egilearenak, adibide gisa—; minbiziak jotako goi-mailako enpresaria; CGIL sindikatua; herri txikietako eskoletan lanean dabiltzan maisuak; edota Txinatik Italiara lanera etorritako beharginak. ■

Los recursos
humanos

Angelo Ferracuti

MEETOK

280 orrialde

18 euro

Salas y galerías de arte
en San Sebastián 1878-
2005

Juan Antonio García Marcos

KUTXA

268 orrialde / 16 euro

Donostiako arte aretoen
historia azken mendean

Salas y galerías de arte en San Sebastián 1878-2005 lanari ekiteko 1863. urtera, Donostiako harresiak suntsitu zituzten garaira, itzuli ditu begiak Juan Antonio García Marcosek. Garai hartan euren artelanak etxean erakusteko ohitura ei zeukaten artistek, Donostiako Hernani kaleko 3. zenbakian El Pinar erakustokia ireki zuten arte. 1878an izan zen hori. Geroztik hamaika leku erabili izan dira eginbehar horretarako: arte ederrak jendarean azaltzeko espresuki eratutako sala eta galeriez gain, askotxo izan baitira asmo berarekin artelanei leku egin izan dieten hotelak, dendak eta ostatuak. Ugari dira, era berean, artelan horien atzean dauden artistak, baita babesle eta zaleak ere. ■

Psikoanalisia eta
Ene Jesus nobela

Euskalerrriaren Adiskideen Elkartek argitaratzen duen *Egan* aldizkariaren azken zenbakian makina bat lan interesgarri aurki daitezke. Adibide gisa aipatzeko modukoak dira Postmodernitate gai harturik joan den urtean egin zen mintegiaren emaitzak: Iñaki Aldekoaren *Ilustrazioaren eragina euskal literaturan*; Iñaki Zabaleta Gorrotxategiren *Euskaldunak Wilhelm Von Humboldt-en begietan*, J. Ramón Zubiaurren *Hizkuntzalaritza Euskal Herrian XVIII. mendean*; Jon Suduperen *Ilustrazioaren kriseilupean*; Xabier Apaolazaren *Globalizazioa edo mundializazioa*, eta Luis Maria Mujikaren *XVIII. mendeko herri lirika*. Horietatik at, Juan Mari Lekuonaz Amaia Iturbidek idatzitakoa eta Ramón Saizarbitoriaren *Ene Jesus* nobelaz Mikel Hernandez Abaituak psikoanalisiaren ikuspegitik egindako gogoeta azpimarratuko genituzke. ■




Egan

Batzuen artean

EUSKALERRRIAREN
ADISKIDEEN ELKARTEA

362 orrialde

18 euro



Adio, Euskal Herria

Anonimo
Islandarra

LULU

58 orrialde

Identitateei adio, bereziki politikan

Askotan entzun izan da euskara darabilen idazleak abertzalea behar duela izan. Eta hala izan ohi da maiz, baina ez beti: Anonimo Islandarra goitizenaekin izenpetzen duen idazle nafarraren *Adio, Euskal Herria. Euskal nortasunaren aurkako panfletoa* dugu horren lekuko. Antinazionalista amorratua du egile, nazionalismoa benetako minbizia dela sinesten duten horietakoa, idazlaneko kritiken xede “sufritzen dugun” euskal nazionalismoa duen arren. Bere iritziz, Euskal Herria ez da inoiz existitu eta oinperatzen gaituztela errepikatzea munduko tontakeriarik handiena da. Haatik,

ez gara gainerako espainolak bezain libreak. Beldurrak baldintzatzen gaitu, anti-abertzale gisa agertzearen beldurrak. ■

Europar hezkuntza-eskubidea zertara mugatzen den

Tantak Euskal Herriko Unibertsitateko hezkuntza aldizkariaren azkeneko alean Pauli Dávila Balserak, Luis M^a Naya Garmendiak eta Iñaki Zabaleta Imazek *Hezkuntza-eskubidearen eremuko Europa mailako azterketa erkatua* plazaratu dute. Hezkuntza-eskubidea eta haurren eskubideak ardatz nagusitzat harturik, arlo horretan Europak bizi duen egoera aztertu dute, horretarako estatu gehienei

buruzko analisi erkatua eginez. Eta ikusitakoan arabera adierazi dute Europar oraindik lan handia dagoela egiteko alor honetan. ■

Tantak

Batzuen artean

EHU

134 orrialde / 10 euro



ASEL LUZARRAGA

«Denok gabiltza idealizatu ditugun kontuen atzetik»

Zure *alter ego*-a al da errealitatetik jasotako oharrik lapurtzen dizkioten idazlea?

Hori gustuko dudan jolasa da, irakurleari pertsonaia nirekin identifikatzeko bidea ematea. Baina berez ez du zerikusi handirik nirekin. Nire lan egiteko modua oso bestelakoa da, batez ere oroitzapen-tara jotzen dut ideien bila eta oso ohar gutxi hartzen dut. Liburu baterako ideia pizten zaidanean bai, horretarako apunteak biltzen ditut, baina bestela gogoan geratzen zaizkidan kontuak liburutuan ager daitezke, eta bidean galtzen direnak galdu eta kito. **Pertsonaia guztiak irrika baten atzetik dabilta, baina azkenean porrotaren mingotsa ezagutzen dute.**

Denok gabiltza neurri batean edo bestean idealizatu ditugun kontuen atzetik. Askotan barrura begiratzea ahazten dugu eta kanpoko gauza materialen, espiritualen edo ideologikoen esku uzten dugu zoriona. Barruan sentitzen dugun hutsa beteko digun haren bila bizi gara. Alferrik gehienetan. Bizitzak, patuak, gainera, ez dizkigu ematen gure merituen edo hobenen arabera merezi ditzakegun zigor edo sariak. Horregatik, nire pertsonaia batzuekin zoria krudela da, amaiera ironikoak gorde dizkie. Beste batzuek zorte hobea dute. Hor dago Malaysiar maitagarriaren patu latza, edo kenyarrarena. Niretzat pertsonaia oso bereziak biak ere.

Jad palestinarrari eskaini diozu liburua.

Egia esan Jad, benetako palestinar laguna, liburua bukatu ondoren ezagutu nuen, Vientianen, eta nire pertsonaiekin zeukan antzekotasunak harritu ninduen. Alde oso handiak ere badauzka, eta zorte hobea opia diot.



GARI GARAIALDE / A.P.

Asel Luzarraga giza obsesioez eta zoriaz

Irrika biziz pertsonaien bila dabilen idazlea, estasia lortu nahi lukeen emakumea, hilotzak piltzen gozatzen duen eraillea, herri guztietako hizkuntzak ikasi nahi dituen neska edo bake bila dabilen palestinarra bezalako pertsonaiez osaturik dago *Abaraska*, Asel Luzarragaren (Bilbo, 1971) azken liburua. Maskaren atzetik etengabe; harreman sexuala proposatutakoan ezezkoa lortu nahian; edota sorgin-belarra eskuratzeko grinaz dabilta bere pertsonaiak. Erleek ezitia gordetzeko erlauntzaren barruan prestatutako zuloxoan modukoa baita liburua: edozein bazterreko pertsonaia ditu, bakoitza bere obsesioarekin, baina guztiak hari fin batez lotuak kontakizunean zehar. Euren bizitzari zentzua emango dien zerbaiten bila dabilta protagonista guztiak, baina gehienak porrotaren mingotsa ezagutuko



Abaraska

Asel Luzarraga

TXALAPARTA

252 orrialde

18 euro

dute. Eta horrek, kasu batzuetan, poztu egingo du *Abaraska*-ren irakurlea, baina ez beti. “Azken finean, munduak, bizitzak, patuak, halakorik badago, ez dute gure moral ikasien arabera jokutzen. Unibertsitateak ez du moralik, ez etikarik, ez onik, ez txarrik. Gauzak gertatu egiten dira. Gu gara gertaera horiei azalpen ‘logikoa’ bilatu nahi diegunak”, dio egileak. ■

egileari galdezka